

Jurdana Uriarte Lejarragak, Bermeoko Udaleko idazkari nagusiak, ziurtatzen dot, 2021-05-04(e)(a)n, TOKIKO GOBERNU BATZARRAK erabagi hau hartu dauela:

#### **4.- UDAL AZOKAN HUTSIK DAUDEN POSTUEN EMAKIDAK ESLEITZEKO DEIALDIAREN OINARRIAK ONARTZEA.**

##### **Xedea**

Udal azokan hutsik dauden postuen emakidak esleitzeko deialdiaren oinarriak onartzea.

##### **Aurrekariak**

Lehenengoa: 2021eko otsailaren 25ean, Behargintzako zuzendariak txostena eman du udal azokan hutsik dauden postuak enkantera ateratzeko beharra adieraziz. Horiek horrela, emakida berriak esleitzeko deialdia egin behar da, eta horretarako oinarriak prestatu dira Idazkaritza Sailean.

Bigarrena: Udal Arkitektoak espediente honen xede den jabari publikoko ondasunen balorazioa eta hirigintza kalifikazioari buruzko txostenak igorri ditu, 2021eko apirilaren 13ko eta 21eko dataz, hurrenez hurren.

Hirugarrena: 2021eko apirilaren 15ean, Errenta Saileko teknikariak txostena eman du, emakidak direla eta ordaindu beharreko kanonari buruz.

Laugarrena: Halaber, espedientean Idazkaritzako AOTren txosten juridikoa dago, 2021eko apirilaren 21ekoa.

##### **Argudioak**

Lehenengoa: Emakidaren xede diren udal azokako postuak jabari publikoko ondasunak dira, zerbitzu publikoari atxikiak, ekainaren 23ko 1372/1986 Errege Dekretuak, Toki Erakundeen Ondasunen Erregelamendua onartzen duenaren 4. artikularekin bat etorritz.

Orobat, hornidura edo merkataritza-jarduera jakin baterako zerbitzu publikoaren administrazio-emakida bateratua egitean datza, bai eta udal-merkatuan xede horretarako izendatutako instalazio iraunkorrak erabiltzean ere, 1955eko ekainaren 17ko Toki Korporazioen Zerbitzuen Erregelamenduaren 114. artikularen arabera.



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:  
07E5000694D60016E3Q4T1V9N9

##### **Sinadurea eta data**

JURDANA URIARTE LEJARRAGA-IDAZKARI NAGUSIA - 05/05/2021  
ARITZ ABAROA CANTUARIENSE-BERMEOKO ALKATEA - 05/05/2021  
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 05/05/2021  
13:05:27

EXPEDIENTE ::  
2021IDA\_DEK0323  
Data: 25/02/2021  
Lekua: Bermeon  
Erregistro unidatea:  
Erregistro nagusia

CSV: 07E5000694D60016E3Q4T1V9N9



Izan ere, emakida honen bidez, zuzenean edo berehala betetzen da Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 25.2.i) artikuluan aurreikusitako horniduren eta merkatuaren helburu publikoa, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 17.1.34 artikuluekin bat etorriz.

**Bigarrena:** Proposatutako okupazio-izaera eta -epea kontuan hartuta, jabari publikoko erabilera pribatiboa da, eta, beraz, dagokion emakida eman beharko da, 33/2003 Legearen 86. eta 93. artikuluetan eta 1372/1986 Errege Dekretuaren 78.1 artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz.

**Hirugarrena:** 33/2003 Legearen 93.1 artikulua ezartzen duenez, jabari publikoko ondasunen gaineko emakidak lehiaketa bidez emango dira.

**Laugarrena:** Kontuan izanda negozio juridiko hori dagokion herri-jabariko emakida egilestearen mende dagoela eta bere legeria propioa izango duela, hori izango da administrazio publikoen ondasunak arautzen dituena, eta, beraz, Sektore Publikoko Kontratuaren 9/2017 Legearen eremutik kanpo geratuko da, nahiz eta, lege-hutsuneen kasuan, kontratu-araudi publikoaren printzipioak aplikatu behar zaizkion.

**Bosgarrena:** Espediente honen xede diren emakidak ez ditu Udalak finantzatzeko, aitzitik, kontzesiodunek ordaindu beharreko urteko kanonaren mende daude.

**Seigarrena:** Emakiden oinarriak eta esleipena onartzeko ahalmenari dagokionez, Sektore Publikoen Kontratuak arautzen duen 9/2017 Legearen II. Xedapen Gehigarriaren 9. atalaren arabera, ahalmena alkateari dagokio, oinarrizko aurrekontua ez baita egungo udal aurrekontuko baliabide arrunten % 10 baino handiagoa. Hala ere, 2021eko otsailaren 2ko 255 zenbakidun Alkatetza Dekretu bidez, ahalmena Tokiko Gobernu Batzarrarengan delegatu zen.

## Erabakia

Tokiko Gobernu Batzarrak bozketa nominatiboari ekin dio eta aho batez erabaki du:

**LEHENENGOA:** Udal azokan hutsik dauden postuen emakidak esleitzeko deialdiaren baldintza agiri administratiboak onartzea.

**BIGARRENA:** Jabari publikoaren gaineko emakidak esleitzeko deia egitea. Horretarako, dagokion iragarkia argitaratuko da Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, udalaren webgunean eta iragarki-taulan. Eskaintzak aurkezteko epea 15 lanegunekoa izango da, iragarkia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

**HIRUGARRENA:** Erabaki hau Idazkaritza sailari, Behargintzari eta ATBri helaraztea,



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:  
07E5000694D60016E3Q4T1V9N9

### Sinadurea eta data

JURDANA URIARTE LEJARRAGA-IDAZKARI NAGUSIA - 05/05/2021  
ARITZ ABAROA CANTUARIENSE-BERMEOKO ALKATEA - 05/05/2021  
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 05/05/2021  
13:05:27

EXPEDIENTE ::  
2021IDA\_DEK0323  
Data: 25/02/2021  
Lekua: Bermeon  
Erregistro unidatea:  
Erregistro nagusia

CSV: 07E5000694D60016E3Q4T1V9N9



jakinaren gainean egon daitezten dagozkion ondorioetarako.

LAUGARRENA: Hurrengo Osoko Bilkuran erabaki honen berri ematea.

Eta honela izan daiten eta ondorio egokiak eragin daizan, ziurtagiri hau idazten dot, erabagia agertzen dan akta behin betiko onespeneren menpean dagoela ohartarazota (Toki Erakundeen Antolakuntza, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoa onartzen duen azaroaren 28ko 2568/1986 EDaren 206. artikulua arabera), Aritz Abaroa Cantuariense alkatearen aginduz eta oneretziaz.

*Orrri-oinean sinatzailea eta data*



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:

07E5000694D60016E3Q4T1V9N9

**Sinadurea eta data**

JURDANA URIARTE LEJARRAGA-IDAIZKARI NAGUSIA - 05/05/2021  
 ARITZ ABAROA CANTUARIENSE-BERMEOKO ALKATEA - 05/05/2021  
 CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 05/05/2021  
 13:05:27

EXPEDIENTE ::  
 2021IDA\_DEK0323

Fecha: 25/02/2021

Lekua: Bermeon

Erregistro unidatea:  
 Erregistro nagusia

CSV: 07E5000694D60016E3Q4T1V9N9

